

## **KABLEBARIK SA: BALOREZKO PROPOSAMENA**

Pandemia garai honek argi eta garbi utzi digu gure bizitza ia bere osotasunean etxetik kanpo egiten dugula eta teknologia gure gaur egungo munduan ezinbestekoa dela ere bai. Horrek esan nahi du gure teknologiak ahalik eta kalitate eta erreztasun handienak eduki behar dituela denon eskutan egon dadin.

Gure eginkizunak nahita nahiez teknologiaren baitan daude gaur egun. Horrek esan nahi du bizitzako alderdi guztiak teknologiaz bustita daudela. Baina, badago gailu bat konkretuki gure egunerokotasunera hainbeste murgildu dan, ezin garela etxetik hura gabe atera: mugikorra. Mugikorrak beste gailuen antzera batera mugatu bat du haren erabilera baldintzatzen duena eta hura kargatzeko kable bat erabiltzen dugu zeinek derrigorrez entxufe bat behar duen, honek elektrizitatea eta azkeneko honek energia iturria, beraz honekin esan nahi dugu ez dela batere eroso eta onuragarria guretzako (ingurumenarentzako).

Laburtuz, kableen menpe bizi gara eta honekin elektrizitatera eta aldi berean energia iturri berriztaezinen erabilera areagotzen dugu. Jakinda azken hauek mugatuak direla eta beti kable eta entxufeen atzetik ibili behar garela, gure bezeroak lasaiago ibiltzeko eta mugikorrak kargatzen duen debora hori aurrezteko, eguzki izpiez kargatzen den plaka bat sortu dugu. Horrela mugikorra kargatzeko ez da ezer behar eta edonon zaudela ere mugikorra beti kargatuta edukiko duzu.

Gure helburu nagusia bezeroen erosotasuna aurkitzea da hauek mugikorra beti gainean eraman dezaten eta inoiz ez daitezen kezkatu behar kablea gainean duten edo entxuferik dagoen gertu. Honek, menpekotasun hori erabat deuseztatzen du eta aldi berean planetaren garbitasuna mantentzen du, energia iturri berriztagarriak erabiltzen ari garelako batez ere.

Azken urteko berritasun nagusi bezala, ikus dezakegu kable indartsuagoak eta azkarrako kargatzen dutenak daudela, kargadore portatilak eta indukziozko plakazko kargadoreak ere sortu dituzte. Hala ere, denak dute zerbait amankomunean, kable eta entxufe baten menpe jarraitzen dutela eta ez dutela batera egun osorako bermatzen. Gureak aldiz bai, sekulan ez da horrelako zerbait planteatu, energia berriztagarriak erabiltzea gure mugikorra beti funtzionatzen egon dadin. Menpekotasuna murriztu eta erabilera mugagabea izan dadila.

Gailua mugikorrean txertatzeko tamaina egokia aurkitzea lortu dugu bertan ahalik eta energia gehien erabiltzeko eta aldi berean mugikorrak duen beste gailu guztiekin bat egiteko. Ezagutzen ditugun eguzki plaken antzekoa da baina askoz ere txikiagoa; energia iturri berriak sustatu nahi ditugunez eta denen eskura egotea nahi dugunez prezio egoki bat jartzea lortu dugu, plaka bakoitzak 150 euro balioko du baina, bezeroek prezio hau mugikorrak duen prezioarekin batera ordainduko du batz bestekoa egin ondoren.

Segurtasun neurri moduan, plaka ez da 24 orduz martxan egongo, honek sistema berezi bat du non beti eguzki izpiak jasotzen egongo den baina mugikorrek %40ko bateria duenean soilik automatikoki hasiko da kargatzen.

Mugikor berririk behar ez dutenentzat beste aukera bat sortzea ere bururatu zaigu: funda bat zein plaka barnean txertatura daramana. Honek 70 euroko prezioa izango du eta hau bai bezeroak zuzenean erosi beharko du. Honen sistema aldiz, zerbait ezberdina izango da: bezeroaren mugikorrek alde aurretik indukzio plaka batean kargatzeko aukera badu funda ipintzea nahikoa izango litzateke. Aldiz, honelako aukeraz gabetzen bada mugikorrek duen Bluetooth sistemara konektatu beharko da funda bere eginkizuna martxan jar dezan.